

JARDUERA FISIKO ETA KIROLAREN ESANAHIK ESPETXEAN: EMAKUME PRESOEN AHOTSAK ARGITARA

Tesiaren egilea: Nagore Martinez-Merino

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Gorputz eta Kirol Hezkuntza Saila

Tesi-zuzendaria: Oidui Usabiaga eta Daniel Martos-Garcia

Tesiaren laburpena:

Artikulu-bilduma bidez osatutako doktorego-tesi honen helburua izan da espetxeratutako emakumeentzat jarduera fisikoak eta kirolak dituzten esanahiak aztertzea eta ulertzea. Metodologia kualitatiboa erabiliz eta teknika ezberdinen bidez, ikerketa-gaiaren ulermen osatua eskuratu nahi izan da.

Lehen ikerketak jarduera fisiko eta kirolaren rola izan du ardatz. Elkarrizketa sakonen bidez, emakume atxiloen bizi-kalitatean eragin onuragarria duela eta hiru rol nagusi betetzen dituela ondorioztatu da: denboraren aurkako estrategia izatea, burdin hesien artean bizi izandakotik ihes egiteko aukera, eta beharrezko bidelaguna izatea.

Bigarren ikerketan, ikergaiaren inguruko errebisio sistematiko bat gauzatu da eta eskuratutako ikerlanen edukiaren analisia burutu da. Eskuratutako emaitzek ikerketa-gaiaren aniztasuna agerian ipintzeaz gain, onura eta oztopoen gaia gailendu dute.

Hirugarren ikerketan, beraz, jarduera fisiko eta kirola burutzeko emakume atxiloek bizi dituzten onura eta oztopoetan sakondu da, errebisio sistematikoko ikerlanak oinarri izanik. Jarduera fisiko eta kirolaren praktikak espetxeratutako emakumeengan maila ezberdinetako onurak sorrarazten dituen arren, oztopoz josia dagoela ondorioztatu da. Gainditu beharreko oztopo nabarmenena, espetxeko erregimenaren zorrotasunaz gain, genero-diskriminazioa da, kartzelen izaera androzentrikoa dela-eta.

Aurkeztutako onuretako bat jarduera fisiko eta kirolak espetxean mikro-erresistentziarako sortzen duen abagunea izanik, laugarren ikerketan, preso ohiei egindako elkarrizketa sakonen bidez, ondorioztatu da espetxeko botere-harremanari zein kontrol sozialari aurre egin eta euren autonomia eta identitatea indartzeko aukera ematen duela. Azkenik, emakume atxilo batzuentzat jarduera fisiko eta kirola esanahi handiko praktika onuragarria dela ikusi arren, antzeman da emakumeen parte-hartzea baxuena dela espetxeko biztanleria osoaren proportzioan.

Ikerketa honen emaitzen ondotik, ondorioztatu da espetxean jarduera fisiko eta kirola sustatu beharko liratekeela, eta programen egonkortasuna zein hobekuntza lortu beharko liratekeela, betiere, emakume atxiloen nahi eta beharretan oinarrituta.